HOMOLOGATURIK DAUDEN EUSKALTEGI EDOTA BARNETEGIETAN, HELDUENTZAKO EUSKALDUNTZE ETA ALFABETATZE IKASTAROAK EGITEN DITUZTEN BERMEOKO BIZTANLEENTZAKO 2023. URTEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA

2023ko irailaren 5eko Tokiko Gobernu Batzarrak, Bermeon erroldatuta dauden 16 urtetik gorako biztanleen euskara ikastaroak finantzatzeko 2023. urterako dirulaguntzen honako deialdi hau onetsi du:

| | |
|---|---|
| XEDEA | HOMOLOGATURIK DAUDEN EUSKALTEGI EDOTA BARNETEGIETAN, HELDUENTZAKO EUSKALDUNTZE ETA ALFABETATZE IKASTAROAK DIRUZ LAGUNTZEA |
| DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA | 4.519,69€ |
| ESKATZAILEAK | Onuradunak 2023ko martxoaren 6an BAOn argitaratutako Euskaltegi homologatuetan euskara ikasten ari diren Bermeon erroldaturiko biztanleei dirulaguntzen berariazko oinarrietan azaltzen direnak. |
| ESKARIA EGITEKO EPEA | 2023ko urriaren 2tik 31ra. |
| ESKARIA EGITEKO LEKUA | -Bermeoko Udaleko Erregistro Orokorrean (Berhaz bulegoa): Ertzilla kalea 6-8.<br>-Bermeoko Udaleko Egoitza Elektronikoan: https://www.tramiteakonline.bermeokoudala.eus/vd/login.aspx?ReturnUrl=%2fvd%2fDefault.aspx%3fkey%3dywhv8ARPM%2fnr0PlcW%2bYkqHluL0jFGNaLB0bNfxTp2RIGKE3Bqq8%2b6SC4qeTL5tXOxJ<br>-39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako bestelako lekuetan. |
| EMANGO DEN GEHIENEKO KOPURUA | 300 € ikastaro bakoitzeko.<br>500 € ikastaro guztiengatik |

| | |
|---|---|
| OINARRI ARAUTZAILEAK | - 2023ko martxoaren 6an BAOn argitaratutako Euskaltegi homologatuetan euskara ikasten ari diren Bermeon erroldaturiko biztanleei dirulaguntzen berariazko oinarrien aldaketa. |
| EBAZPENAREN EPEA | Hiru hileko epea egongo da ebazpena jakinarazteko, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita. |
| JUSTIFIKAZIOEN EPEA | Eskariarekin batera aurkeztutako dokumentazioan justifikatutakoaren arabera ebazten da dirulaguntza. |
| HELBURUAK BALORAZIO IRIZPIDEAK PROZEDURA | Horiei buruzko argibideak 2023ko martxoaren 6an BAOn argitaratutako Euskaltegi homologatuetan euskara ikasten ari diren Bermeon erroldaturiko biztanleei dirulaguntzen berariazko oinarriak azalduta daude. |
| AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO A | -Eskaera-orria beteta<br>- Nortasun Agiriaren fotokopia<br>-Langabeek, lan-bizitzaren ziurtagiria<br>-Oinarrizko Errenta edota Gizarte Larrialdiko Laguntzarik jasotzen dutenek laguntza hori jasotzen dutela egiaztatzen duen agiria<br>-Matrikula ordaindu izanaren egiaztagiria. Barnetegien kasuan, bakarrik ikastorduen matrikulari dagokion kostua<br>- “Ikaslearen ibilbide osoa” agiria (www.habe.euskadi.eus) |